



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko irailaren 8a

8. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Osoko bilkuren egutegia zehaztea, kontroleko osoko bilkuretarako interpelazioak banatzea eta txandak (2. or.).
- Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioaren eleduna aldatzea (3. or.).
- Carlos Mena Blasco jauna Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioan sartzea (3. or.).
- Ibai Crespo Luna jauna Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioan sartzea (3. or.).
- Isabel Aramburu Bergua andrea Geroa Bai talde parlamentarioan sartzea (4. or.).
- José Miguel Garrido Sola jauna Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioan sartzea (4. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Osoko bilkuren egutegia zehaztea, kontroleko osoko bilkuretarako interpelazioak banatzea eta txandak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluekin bat, honako hau ERABAKI DA:

Lehena. Bilkuraldi bakoitzeko hilabete guztietako ostegunetan egitea osoko bilkurak, halako moduan non txandaka eginen baitira bilkura arruntak eta Gobernua kontrolatzekoak; azken horietan, galderak eta interpelazioak soilik eginen dira.

Bigarrena. Interpelazioak honako arau hauen arabera sartzeko osoko bilkurako gai-zerrendan:

1. Osoko Bilkura bakoitzean bi interpelazio sartuko dira gehienez ere, salbu eta Mahaiak, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, interpelazioen bat atzeratu baldin badu —Nafarroako Gobernuak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 208. artikuluko 3. apartatuak xedatzen duenaren arabera eta, ahal dela, asteleheneko 9:30ak baino lehenago—; kasu horretan, hiru interpelazio eztabaidatzen ahalko dira.

2. Talde parlamentario bakoitzari interpelazio bat dagokio, zazpi esku-hartzeko kupo bakoitzean. Talde parlamentario bakoitzaren parlamentari kopuruari jarraikiz sartuko dira interpelazioak

gai-zerrendan; handitik txikirako hurrenkeran, han zuzen ere.

3. Talde parlamentario batek uko egiten badio edo interpelaziorik ez badu aurkezten bere txandan, txanda galduko du eta dagokion hurrengo txandara arte itxaron beharko du beste interpelazio bat aurkezteko.

Hirugarrena. Osoko bilkura arrunt bakoitzean gehienez ere zazpi mozio sartuko dira, bat talde parlamentario bakoitzeko.

Laugarrena. Interpelazio, galdera edo mozio bat kasuko gai-zerrendan sartzeko epea osoko bilkura egitekoa den aurreko asteko osteguneko 17:30ean bukatuko da.

Bosgarrena. Osoko bilkurak eta batzordeen eta ponentzien bilkurak 09:30ean, 12:15ean eta 15:15ean hasiko dira, non eta Mahaiak ez duen, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, beste ordu bat ezartzen.

Seigarrena. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari eta talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

El Presidente: Unai Hualde Iglesias

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioaren eleduna aldatzea.

2023ko irailaren 5eko idazkiaren bidez, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak Carlos Guzmán Pérez jauna eledun izendatu dutela jakinarazi zuen, Begoña Alfaro García andrearen ordean.

Iruñean, 2023ko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Carlos Mena Blasco jauna Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioan sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Carlos Mena Blasco foru parlamentari jaunak 2023ko irailaren 5ean aurkezturiko idazkia, zeinaren bidez jakinarazten baitu Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioan sartu dela, honako hau ERABAKI DA:

1. Idazki hori jasotzat ematea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Ibai Crespo Luna jauna Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioan sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Ibai Crespo Luna foru parlamentari jaunak 2023ko irailaren 5ean aurkezturiko idazkia, zeinaren bidez jakinarazten baitu Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioan sartu dela, honako hau ERABAKI DA:

1. Idazki hori jasotzat ematea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Isabel Aramburu Bergua andrea Geroa Bai talde parlamentarioan sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Isabel Aramburu Bergua foru parlamentari andreak 2023ko irailaren 6an aurkezturiko idazkia, zeinaren bidez jakinarazten baitu Geroa Bai talde parlamentarioan sartu dela, honako hau ERABAKI DA:

1. Idazki hori jasotzat ematea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

José Miguel Garrido Sola jauna Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioan sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita José Miguel Garrido Sola foru parlamentari jaunak 2023ko irailaren 6an aurkezturiko idazkia, zeinaren bidez jakinarazten baitu Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioan sartu dela, honako hau ERABAKI DA:

1. Idazki hori jasotzat ematea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias